

Antonio Zavala Echeverria
(Tolosa, 1928.01.23 – Xabier, 2009.01.02)

*Tolosan, 2009ko maiatzaren 22an
Joxemari Iriondok*

Kortesiak agintzen duen bezala, Antonio Zavala zenaren familiakuok, Gipuzkoako Ahaldu nagusia, Tolosako alkate jauna, Euskaltzainburu jauna, eta Antonio Zavala zenaren adiskide eta lagun guztiok

Arratsaldeon.

Hasteko, esan behar dut ez zela omenaldizalea Antonio Zavala, nahiz eta Tolosako herriak *Herriko seme kuttun* izendatu zuen¹, edota Deustuko Unibertsitateak *Honoris causa* Doktore egin²; Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokak *Argizaiola* eman³, eta 1999an erakusketa bibliografikoa egin zuen; Derioko Labayru ikastegiak *Gatzontzia* eman zion⁴...

Merezitako omenak ziren denak, eta biziki eskertu zituen. Baina, ez zuen nahi saririk beretzat bakarrik. Deustuko Unibertsitateak *Honoris Causa* Doktore izendatu zuenean, txapela banatu egin nahi izan zuen:

“Txapel batekin bi buru ezin jantzi ditezkeela esan oi degu sarritan. Baiña esaera zaar ori gaurko ontan gezurrezkoa gertatu dalakoan nago. Aldi ontan, neri ez ezik beste askoren buruari ere eransten diozute estalki ori⁵

1961ean ezagutu nuen nik Antonio Zavala, bere Auspoa sail berriko lehenengo alea (Ramon Artolaren *Sagardoaren graziya*, 1961) eskaintzera etorri zitzaidanean. Orduz geroztik, ehunka aldiz ikusi nuen, eta hitz egin Antoniorekin, bertso-jaialdietan bi mutil gazte lagun hartuta bere *Auspoa* saltzeko baimena eskatuz etortzen zenean –aldi berean, kasettea martxan jartzen zuen jaialdia grabatzeko–, Euskaltzaindiak antolatzen zituen Bertsolarien Txapelketetan, Donostian eta Xabierren egin genion hainbat bisitalditan. Euskaltzaindiko Herri Literatura batzordeko kide genuen, eta bilera gutxitara etortzen zenez, behin baino gehiagotan bisitatu genuen Xabierren, berarekin berriketaldi ederrak eta egunpasa gozoak eginez.

Horretaz gainera, inoiz nahikoa eskertu ez nion opari ederra egin zidala ere aitortu behar dizuet: 2002tik 2008ko urtezahar bezpera arte, Antonio Zavalarekin telefonoz egunero hitz egiteko zoria izan nuen –askotan egunean bi, hiru eta lau aldiz ere bai, oso aitzakia txikia behar izaten zuen- eta gurera deitzeko–. Baleki zenbat kosta zaidan gero bere deien hutsune hori gainditzea!

¹ Tolosa, 2002.10.06

² Deustuko Unibertsitatea, 1999.11.19

³ Durango, 1996ko abenduan

⁴ Labayru-Derio, 1997.07.11

⁵ Deustuko hitzaldia, 1999.11.19

Gauzak diren bezala dira, baina Antoniori bakarrik ibiltzea tokatu zitzaion:

“Bakarrik ibili naiz, laguntasunik gabe. Diru-eske ateak jo ditudanean ere inork ez dit lagundu orrenbeste urtean. Norbaitzuentzat izango da dirua gero, baiña neretzat ezta izan... Biltzaille izan naiz, baiña billatzaille batez ere. Eiztariak makiña bat tiro uts egin bear izaten duan bezelaxe, nik ere kolpe uts asko eman det, nai ez nuala ere⁶”.

Herri honetan jaioa

Antonio Zavala Echeverria, hementxe jaio zen, Tolosan, 1928ko urtarrilaren 23an. Eta azkenengo urteak pasa zituen Xabierren hil zen, 2009ko urtarrilaren 2an.

Erdarak indar haundia zuen herrian jaio zen, berak aitortzen zuen bezala. Ez zen bertso-giroan jaio eta hazia, beraz. Baina larunbatetako merkatura inguruko baserritar jendea erruz biltzen zen Tolosan, eta bertsopaper-saltzaileak ere ugari, nahiz eta bere etxean ez zen holako girorik:

“...Baiña tolosarra naizenez, Ramos Azkarate bertso-jartzaille oparoaren aitamenak entzungo nituan etxean, seguru asko. Gure ama donostiarra zan, eta Bilintxen bertso batzuk bazekizkian, *Bein batian Loiolan*-eta ola. Adunan, berriz, Asteasuko Pello Errota eta Zizurkilgo Otañotarrak oso gogoan zituzten. Gure aldameneko baserrian, ain zuzen, Pedro Mariren lengusu bat bizi zan, bera ere Argentinan izana.

Aitaren eragiñik apenas izan nuan, nik amar urte nituala il zan-eta. Amarenak askoz gehiago; ark erri-jakinduria eta erri-izkuntza asko estimatzen zituan”⁷.

Tolosan jaioa, eta bere gurasoek Adunan zuten Zabale-txiki etxeari oso lotuta pasa zuen gaztaroa, harik eta Jesusen Lagundian sartzea erabaki zuen arte. Gero ere udako oporraldiak Adunan pasatzen zituzten askotan, gurasoen etxe hartan.

Hautzaroko lehenengo eskola-urteak, herrian hasi berri zen Escuela Vasca izeneko batean egin zituen, Ikastola antzeko batean. Baina han neskak eta mutilak batera ikasten baitzuten, bere anaiak joaten ziren herriko Hermanos del Sagrado Corazón ikastetxean nahiago zuela eta hara joaten hasi zen. Ondoren, berriz, herriko Eskolapiotara, batxilergoa egiteko.

“Goizeko zortzitan sartzen giñan eskolan, eta illunabarreko zazpi t’erdietan atera. Eguerdian, ordu t’erdiko tartea izaten genduan, bazkaltzeko. Estudiatzen nuan, baiña leer egin gabe. Pasa-modu on batera iritxi eta naikoa...

Jolasak, berriz, futbola, batez ere, eta pelota piska bat. Baiña oiek baiño geiago maite nuan nik mendia. Mendiarekin zoramena neukan gaztetan ere, eta gero ere alaxe izan det, geroz mendi-ibilaldi gutxiago egiten badet ere orain.

⁶ Elkarrizketa, 2005eko maiatza

⁷ Donostian 2007ko elkarrizketa

17 urtetara etorri, eta Jesusen Lagundian sartzea erabaki zuen, bere anaia Piok eta Bixentek bezelaxe.

Bertsozaletasuna

Adunatik zetorkion Antoniori bere bertsozaletasuna; eta bertso-paperak biltzeko afizioa eta arreta, Tolosatik:

“Adunako festetan entzun nituan nik leenenengo aldiz bertsolariak. Aietako bat Asteasuko Bautista Ondartza zala uste det, urtero etortzen zan-eta Adunara⁸. Baina inoiz ez nuen jakin egun artako aren bertso-laguna nor zan. Andik urte batzuetara, uda batez, 17 urteko amezketar gazte bat eraman zuten Adunako erriko jaietan bertso-tara, eta pozik entzun nituen neu bezalakoxe gazte arexen ateraldiak! Bertso osoa ez, baiña gogoan daukat bertso-tako bat nola amaitu zuen gazte ark:

Ni bezelako bertsolaririk
ez da oraindik azaldu.

Txikitatik ikusten nituan nik Tolosan bertso-paper-saltzaileak. Eskolapiotatik etxera bazkaltzera nentorrela-ta, paper-saltzaileraren bat edo beste an izaten zan kantari, gu bizi giñan tokitik gertu. Larunbatetan izaten zan merkatu-eguna eta or ibiltzen ziran bertso-paperak kantatu eta saltzen. Bertso-paper-saltzaile aukeratuak dira umetatik ikusi eta urteen buruan bidea erakutsi zidatenak⁹.

Bertso-paper-saltzaileak askotan ikusi zituen mutikoak bere herrian, igandetako meza nagusi ostean elizako atarian, edota azoka-egunetan merkatu-plazan, Zerkausian, astero-astero hantxe bildu eta ederki asko kantatu eta saltzen baitzituzten bertso-paperak. Eta zer esaten eta kantatzen zuten entzuteko irrika biziz inguratzen zitzairen jendea. Antonio gazteak doinuari edo musikari baino gehiago erreparatzen zion letrari, eta bere lanari eskuak eranstea gogoia eta adorea handik sortu zitzaion:

“...Tolosara itzuli nintzan batean, bertso-saltzaile oietako bat ikusi nuan kalean, eta orduan bai, orduan erosi nion. Bera nor izango eta Pello Saikola, Zestoan jaio eta Aginagan bizi zana, andik urte batzuetara Gaztelu bertsolariarekin ainbat bertso eta berri emango zidana...”

Orduko bertso-paperak galdu egin omen zuen, baina ondo gogoan eduki zuen saltzailearen izena, haren bertsoak Auspoan argitara eman baitzituen gero (*Zubeltzu eta Saikola bertsolariak*, Auspoa 93, 1970).

Baserri askotara joanez, bati eta besteari etxean zeuzkaten bertso-paperak eskatuz, edota kartak idatziz hasi zen bilketan. Eta garai hartako laguntzaile onak askotan aipatzen zituen: Herritar Luis Rezola *Tximela*, zenbait apaiz ezagun, batez ere, Igeldon segun don Balentin Zamora -harekin erabaki zuen bildumari *Auspoa* izena jartzea-,

⁸ Elkarrizketa, 2005eko maiatza

⁹ Elkarrizketa, 2005eko maiatza

Balendin Enbeita ariatzarra eta abar. Udaldietan Loiolara joan eta Azpeitia-Azkoitia buelta horretan ere sareak bota eta arrantzan saiatu zen, Larrumeko mutikoaren ekarpena gogoan.

Nahigabe asko izaten zuen ordea: “Tiro huts asko egin nuen”, zioen. Behin baten Oriora joan eta han pasatu zitzaiona bezalako asko, seguruenik:

“... alako etxe batean izango nituala bertsopaperak esan zidan lagun batek. Ala, abiatu nintzan etxe orretara; baiña atea jo eta galdetu orduko esan zidaten: “Oi! Etxez aldatu giñan, ba, eta paper denak galdu genituan”. Baiña segidan esan zidaten posible zala alakok bertsopaperak izatea, eta beste etxe batera bideratu ninduten; eta an zapata-kaja bat bete bertsopaper eman zidaten¹⁰”.

Baina ez zen denek maite zuten lanbidean sartu Antonio, garai hartan peilokeria baitzen holako lanak egitea, barregarria, hutsaren urrengoa. Bere lagundiko aita Aranzadik, onela esan omen zion:

“Urtetan or jardun gera kurpilotik esku-soiñuari *inpernuko auspoa* esanez, orrek dantza lotua ekarri zualako, eta zuk orain liburu-sorta bati *Auspoa* izena jarri?

Beste apaiz batek onela idatzi zidan: “Nola-alako liburu oiek etorkizunik ez dute. *Auspoa* ilda jaio da”. Lasarteko baserritar batek, berriz, Sasuetako Mikel Zuaznabar zanak, onela idatzi zidan: “Zure liburuarekin batera, txakurkume bat ekarri genduan. Ala, *Auspoa* jarri genion berari ere izena. Baiña, zer da-ta, andik egun gutxira ilda aurkitu genduan. Beraz, zure liburu-sorta orrek ere denbora gutxian iraungo du”. Aren iritzia etzan egizkoa atera. Baiña bera *Auspoa*-ren artzaille izan zan il arte¹¹.

Euskaldun eta bertsozaleek baino gehiago animatu zuten erdaldunek bide horri jarrai ziezaion. Bere lagun aita Antonio Perez bezalako laguntzaile onak izan zituen. Izan ere, hark askotan esaten zion:

“Segi bide orretan gogotik, eta egin ezazu lan ori, biltzen dezun material orrek gero eta geiago balioko du-ta”, esan zidan. Aita Juan Goikoetxea jesuita zeraindarrak ere animatu ninduan. Baiña beste gutxik sinisten zuten lan onetan¹².

Itxura denez, bertsopaperetakoa euskara mordoiloa, arlotea iruditzen zitzaion askori. Eta holakoei erantzuna ematen saiatu zen Euskaltzaindiak eskatuta, 1956an Arantzazun eman zuen hitzaldi hartan¹³.

Xabierren irakasle

Lehenengo jesulagun-ikasketak egin eta handik bost urtera, 1950ean, Oñara (Burgos) joan zen filosofia-ikasketak egitera. Han historia pixka

¹⁰ Elkarrizketa, 2005eko maiatza

¹¹ *Honoris Causa doktore*, Deustun, 1999

¹² Gijonen bizi da Antonio Perez orain

¹³ Elkarrizketa Donostian, 2005

bat ikasten hasi zen; eta ia-ia historiaren bideetan sartu zen buru-bihotz, berak askotan esan zigunez.

Alabaina, historia-kontuak utzi eta berean jarraitzea erabaki zuen azkenik, gure zorionerako. Oñan filosofia-ikasketak egiten ari zela, Iruñean argitara emandako Pedro Migel Urruzunoren *Ipuiak* liburua irakurtzeko zoriona izan zuen. Ikaragarri gustatu omen zitzaion Elgoibarko apaizaren euskara ederra eta gauzak esateko modua. Garai hartako puritanismoak ez zuen betetzen Antonio, eta Urruzunok euskara herrikoia eta iturri onekoa ematen zuela ohartu zen, garaiko modak kutsatu gabea. Haren ipuin eta bertsoak, berezko iturritik zetozen ur garbia bezala iruditu zitzaizkion.

Aldi berean, Pedro Mari Otañoren bertsoak bildu zituen *Alkar* izeneko liburua eskuratu zuen, eta ahoa bete hortz utzi zuen haren euskerak. Gustagarriak ziren zizurkildarraren euskara eta kontakera-kantakera. Hain maite zuen Adunatik hurbil zegoen Zizurkilgo semea zela jakiteak ere bihotza ukituko zion, agian.

Hala ere, bere langintzaren benetako oinarria Xabierren aurkitu zuen 1953an jesuitetan ohikoa zen *maestrillo*-garaia betetzera joan zenean. Besteak beste, Tolosako merkatuan edo eliza-atarian salgai ikusten zituzten bertsopaperak erosi eta bidaltzeko eskatu zien etxekoei, eta bai bidali ere haiek. Bertsopaper horietako bat Izaskungo Ama koroatu zutenean Tximela herritarrak jarritako bertsoak ziren.

Baina ba omen zen Xabierren ikasten ari ziren mutikoen artean beti bertsopaperak eta euskal-kantak gora eta behera ari zen hamaika-hamabi urteko mutiko bat, Azkoitiko Kuku-erri auzokoa. Eta hurrengo oporraldian etxera joaten zenean, etxean aurkitzen zituen paper denak hartu eta eramateko eskatu zion. Halaxe, Eguberrietako jaiak etxean pasatu eta Erregeen bigarren edo hirugarrenean berriro Xabierra itzuli zenean, pozaren pozez, autobuseko leihotik deiadarka hasi omen zitzaion mutiko hori: “Ekarri’ittut, ekarri’ittut bertsopaperak! Ekarri’ittut!”

Hala, Larrume Haundi baserriko Alejandro Larrañaga mutikoak bertsopaper pila handia eramán ziola ikusita, *regla de tres* ximple bat egin zuen: Urolaldeko baserri bakar batean horrenbeste bertsopaper badago, zenbat ote dago Euskalerrri osoan?

“Alaxe bada, 1954-ko Errege ondorengo illuntzean Xabierko gazteluaren oiñetan entzun zan oiur orrek eman zion asiera nere bertso zaar biltzeari¹⁴”, zioen.

Gero, lan harrigarria egin zuen, ustekabean, agian. Jaiegun eta opor-garaian, Euskal Herriko baserrietan aterik ate ibili zen, bati hau galdetu eta besteari hura eskatu, ordura arte inork estimatu eta aintzat hartu ez zituen bertsopaper zahar eta kontakizunak bildu eta jasotzen.

¹⁴ Elkarriketa Xabierren, 1999

Hainbat zita aipa dezaket. Eta “hil da gero salda bero” egin duen asko bada ere gure artean, Joxerra Garciak egindako haxe ere argazki ontzat daukat, Antonioren lana goraiatzear:

...estimatzen dena bakarrik biltzen da. Inork ez du bere ustez ezertarako balio ez duen generoa biltzeko lanik hartzen. Zavalari hori zor diogu ororen gainetik: geurearen balioa erakusten hainbeste urtez eta hain baliabide urriz erakusten tematu izana¹⁵.

1956: Arantzazuko hitzaldia

Antonio ixil-ixilik eta bakarrik ari zen bere noraezean, bere proiektua nola burutu ez zekiela, beharbada. Baina bere lanaren oihartzuna zabaldu zen Euskal Herrian, eta Arantzazun hitzaldi bat emateko eskatu zion Euskaltzaindiak, 1956ko irailaren 15ean, Euskaltzaindiak gerra ostean egin zuen lehenengo batzar irekian¹⁶. “Hace ya dos años que no hago sino leer y copiar *bertso berriyas*”, esan zuen; baina berrogeita hamar mila bertso edo gehiago bai omen zeuzkan bilduta ordukoz, saiatu eta saiatu. Hitzaldi haren izena, *En busca de la poesia popular a través del Pais Vasco – Bertso berrien billa Euskalerrian zear*¹⁷. Bere egitasmoaren deklarazio zehatz eta argia izan zen lehenengo hitzaldi hura.

1957ko abenduan eman zuen bigarren hitzaldia, Donostian, *Gure erriaren fedea, bertsoan ageri denez- Religio-bertsoak* gai hartuta. Bere ustez hitzaldia ez omen zuen ongi prestatu eta lotsaz beteta joan omen zen Gipuzkoako hiriburuko hartara.

Hirugarren hitzaldia Bilbon eman zuen, 1958ko abenduaren 14an, *Bertsolariak eta Europako lenengo gerratea (1914-1918)* gaia aztertuz.

“Euskalerriko Bertsolarien txapelketa” izeneko liburuan¹⁸ bildu zituen Euskaltzaindiak antolatu eta Donostiako *Centro de Atracción y Turismo* etxearen laguntasunez, 1960ko abenduaren 18an, Victoria Eugenia antzokian egindako Bertsolarien Txapelketako bertsoak. Berak idatzi zuen hitzaurre edo aurkezpenean aldaketa onak nabaritu zituela dio:

“Orain arteko bertsolarien saioak, zenbat eta ederragoak izan, ainbat eta gauza tristeago bat zekarten bere ondoren: ainbeste bertso eder beti-betiko galdu izana. Bat edo beste erriak buruz artzen zuan; baiña gaiñerakoak momentu bateko loreak izan bear.

Republika denboran, Euskalerrri guziko bertsolarien bi txapelketa egin ziran. Aietako batean, gazte mordoxka bat aurretik prestatu zan bertsoak paperera idazteko. Bertsolariak kantatu eta kopiatzailleak lapitza dantzatu... Gaur, berriz, beste konturik dago. Azken txapelketa ontan bost bat magnetofon bazeuden agertokiaren saietsean. Ari orrek eman du liburu au osatzeko bidea; baiña, oraingoan, letra bakar bat ere galdu gabe”.

¹⁵ Joxerra Garciak *Zavalaren zabalaz*. Argia, 2009.02.01 – 2170 zenb

¹⁶ Euskera, 1956

¹⁷ Auspoaren auspoa I: Auspoa, 238

¹⁸ Itxaropena argitaldaria, Zarautz, 1961

Gogorra zirudien, baina sentsibiltate haundiko gizona zen Antonio. Sentibera eta sentikorra, aldi berean. Lehenengo ikasketak egin eta Loiolara joan zenean, han inguruko auzoetara joaten ziren ostegunetan, dotriña erakustera-ta. Berari Urrestilla tokatu zitzaion, eta gustura joaten omen zen haraxe, hango neska-mutilek euskaraz oso ondo egiten zutela-ta. Izan ere:

“Euskal-giro ori arnastu egiten zenuen an; eta artarako sentsibildadea izan ezker, zure barrenean bere kutsua uzten dizu orrek. Neri beintzat orixe gertatu zitzaidan Loiolan pasa nituan urteetan. Orduñan ere berdin. Opor-egun guztietan mendira joaten giñan, eta topo egiten genduan jendearekin itz egiten saiatzen giñan. Izan ere, olako jendeak asko erakusten dizu...”.

Harrezkero, zenbat bertso eta herri-kontakizun jaso eta bildu zuen Antoniok! Herri-kulturarekiko maitasun eta sentiberatasun berezia zuen, gure herriko ahozketasuna eta herri-prosari begirune haundia, lehenik Auspoan eta gero Biblioteca de Narrativa Popular sailean. Gizon kultoa zen Antonio, asko ikasi, irakurri eta entzuna. Ez dago *Oiñez eta jakin minez* sailari begiratu besterik.

1961: Auspoa bilduma

1959ko abuztuaren 11n meza berria herrian eman eta, Zavalatarren etxea Tolosako parrokiaren ondoan izaki, begira zer esaten duen Antoniok:

“Ia gaueko amabiak izango ziran, eta miradoretik kanpora begira jarri nintzan, nekatuta. Eta orduan, alboan zegoen Zeru-txiki tabernatik gau-pasatzaile batzuk kantuan asi ziran. Eta zer kantatuko, eta Ramon Artola tolosar bertso-jartzaille aundiaren bertso batzuk: *Bedeinkatua izan dedilla/sagardoaren graziya*.... Eta, pentsa zazu, andik bi urtera bertso-sail orrekin eman nion asiera Auspoa sailari, lenengo liburu orri *Sagardoaren graziya* izenburua jarrita¹⁹”.

Hiru-lau urte lanean eta Antonioren kutxa haunditzen eta edertzen ari zen. Eta bertsopaper asko bildu ostean, 1961ean sortu zuen bere Auspoa, gero hainbat haunditu eta gotortu den sail berdingabea. Lehenengo alea, *Sagardoaren graziya eta beste bertso asko. Bertso jarriak* (Ramon Artola Larrañaga. Auspoa, 1-1961) izan zen.

Gero, harpidedunak egitera abiatu zen zuzenean, atez ate. Bertsopaperak edo kontakizunak bildu, idatzi, liburua prestatu, zuzendu, argitaratu eta harpidedunen eskuetaraino liburua zabaltu eta kobratu, dena berak egiten zuen hasieran. Baina gogorra gertatu zitzaion, berak esaten duenez:

Asi aurretik propaganda orri batzuk zabaltu genituan, eta jende askok baiezkota eman zigun... Ala, leenengo liburua ateratakoan izena emandako guziei bialdi genien, gero kobratuko gendualakoan. Baiña, itxura danez, jende askori etzitzaion gure emaitza gustatu. Irureun bat liburu kobratu gabe gelditu

¹⁹ Elkarriaketa, 1997

ziran. Ipurdiko ederra izan zan guretzat. Baiña ori bezelakorik ez dago
iñozenteak eskarmentatzeko²⁰

Horrela hasi zen ahozko eta herri-literaturan gure herrian egundo inoiz egin den bildumarik garrantzitsu eta osoena. Handik hona, liburu-sail harria osatu zuen Antoniok, nahiz eta inprimatuta zegoen 312. alea zabaltzen hasteko zegoela hil zen.

Liburu saila haundia da: 312 liburu, *Auspoa txikia* sailean (1961-2009an) –zerrenda horri erantsi behar zaizkio maiatz honetan Nikolas Aldai eta Pello Esnalek burutu duten *Uztapide bat-batean antologia* (Auspoa 313), eta Uztapide eta Zavalak egin zuten (1974-1975) *Lengo egunak gogoan* (Auspoa 314). *Auspoa berdea* sailean, 6 liburu (1974-1976); 12 liburu, *Auspoa urdina* sailean (1993-2002). Eta horiez gainera, Lazkao Txikiren *Irriz eta Malkoz I – Irriz eta Malkoz II*; *Karlisten Bigarren gerrateko bertsoak*; eta *Euskal Erromantzeak – Romancero Vasco* bilduma harrigarria gainera.

Baina bada gehiago ere. Euskaraz argitaratuez gainera, *Biblioteca de Narrativa Popular* saila sortu zuen Antoniok 1993an, eta 28 liburu argitaratu zituen. Hogeita bederatzigarrena prestatuta utzi zuen bere ordenagailuan eta laster emango da argitara.

Bakarrik ibili zela esan dut, baina laguntzaile onak aurkitu zituen inoiz eginkizun haundi hortan. Baserriz-baserri ibili, edota gutunez egindako eskariez gainera, Joxe de Artetxe azpeitiarrarekin hitz egin omen zuen behin, eta hark egunkarian argitaratu zuen artikulua/deialdi bati esker, pilaka etorri omen zitzaizkion bertsopaperak: Gregorio de Mujika zenaren alargunak bidalitako paper zahar pila hartu zuen lehenengo; gero, Donostian, Errenterian, Azkoitian, Oiartzunen, Orion eta abar bertsopaper asko azaldu omen zen, Tolosako Manuel Urreta zenak emandako sorta aipagarriaz gainera. Don Manuel Lekuonaren laguntasuna eta animo-hitzak, edota Manterola bezalako beste askoren laguntza ere goraipatu izan zuen.

Beste askotan, berriz, bertso bila joan, atea jo eta, “Ai, etxez aldatu ginen eta paper zahar guztiak erre egin genituen, ba –esan zioten. Pedro Migel Urruzuno apaizarekin horrelako zerbait gertatu omen zitzaion, Mendaroko Agustinetara joan eta zera erantzun baitzioten mojek: “Mire usted lo que pasó, padre. Que nada más morir don Pedro Miguel, enfermó de pecho una Hermana y, como comentaron que se trataba de tuberculosis y se le tenía tanto miedo por el contagio, le sacamos de la comunidad y la metimos en el cuarto que había sido del capellán. Y después que murió ésta, quemamos todo lo que había en el cuarto.

Horregatik, “toki askotara berandu eldu nintzan!”, esan ohi zuen, penaz. Baina beste bertsopaper-iturri asko ere izango dela begiratzeko pentsatzen zuen.

²⁰ Deustuko hitzaldia, 1999.11.19

Ez bertsoak bakarrik

Aurreko bideoan entzun dugunez, prosa ere sortu eta sortarazi zuen Antoniok Auspoa sailean. Lanerako metodo bereziak erabiliz inoiz ezer idatzi ez zuen jendea idazten jarri zuen, idaztera animatu. Eta pazientzia ikaragarria izan zuen horretarako.

Garai batean, bertso-liburuek harrera hobe izaten omen zuten prosazkoek baino. Hala ere, Bitoriano Iraola eta Pedro Migel Urruzunoren prosazko liburuak oso ondo hartu zituzten Auspoaren harpidedunek. Gero, Txirritaren biografia egin zuen, bere iloba Joxe Ramon Erauskinen kontatu eta Zavalak berak idatzia; eta *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua* (Auspoa 32, 1963). Zenbat arratsalde, zenbat ordu neketsu baina eder pasa ote zuen Antoniok Mikela Elizegirekin, aitonaren kontakizunak grabatu, idatzi eta egokitzen!

Azkenengo hau Gabriel Aresti eta Antonio Valverdek bakarrik goraldutela esan ohi zuen ordea, eta azkenengo urteetan Bernardo Atxagak.

Joxe Salaberriaren *Neronek tirako nizkin* (Auspoa 38, 1964), Joxe Manuel Arrizabaloren *Baso-mutillak* (Auspoa 134, 1979), Juan Joxe Irazustaren *Nork bere bidea* (Auspoa 143, 144, 145), Atañoen 12 liburu eta abar ere atera zituen prosan. Baiña Sendoako Joakin Berasategirekin martxan jarri zuen sail berdean, Uztapideren *Lengo egunak gogoan* (1974-1975) izenekoak sekulako arrakasta eta salmenta izan zuen. Ez zen holakorik ezagutzen hemen ordura arte. Jendea idaztera gehiena animatu zuena Uztapideren hauxe izan zela aitortu ohi zuen Antoniok.

“Bertsolariak edo bertso-jartzailleak bein baiño geiagotan eskeini izan dizkigute autobiografi-moduko batzuk. Edota beren bizitzaren zati bat kontatzen digute. Bertsotan, ordea, eta labur antxean. Baiña patxaraz idatzitako autobiografi luzeopar bat, eta prosaz gaiñera, aurrena Uztapide izan dala esatera ausartuko nintzake”²¹.

Bertso edo prosazko liburu bakoitzarekin enamoratu eta maitemindu egiten zen Antonio. Zer kontatua zuen edozein kontatzailek liluratzen zuen; eta kontalari onak, zoratu.

Tiro hutsak ere izaten zituen, berak esan bezala. Inoiz, Izarraitzen azkenengo baserriraino joan, ustez grabaketa txukun samarra egin eta etxera etorri, transkribapena egiten hasi eta magnetofonoak huts egin omen zion. Hori eta horren antzekoak ziren Antonioren tiro hutsak.

Auspoaren auspoa, Oiñez eta jakin-miñez

Antonio Zavalaren beste lan eder eta bikainetako bat *Auspoaren auspoa* eta *Oiñez eta jakin-miñez* liburuak dira, lehenengoan Antoniok han-hemen emandako hitzaldiak eta bigarreanean eguneroko prentsan argitara emandako artikulua bilduma argitaratuz.

Auspoaren auspoa sailean lau liburu argitaratu zituen: Auspoa 238 eta 239 (1996), Auspoa 262 (1999) eta Auspoa 300 (2006). *Oiñez eta jakin-*

²¹ Berriz plazara, Itzaurrea, A. Zavala, 2001

miñez sailean, berriz, Auspoa, 249 (1997), eta handik bi urtera, Auspoa 263 (1999), *El Diario Vasco* egunkarian argitaratutako artikulu-sorta bilduz.

Egoki asko dio Pello Esnalek nola dauden idatzita artikuluetako kontakizunak: “Jakiteko irrikaz eta apal. Maitasun-begiz eta eskuzabal, gertaera eta gizon-emakumeengana xeratsu hurbilduz, gertaera bakoitza egoki irakurriz: historia, historia bezala; eta kondaira, kondaira bezala, baina azalean geratu gabe; bakoitza bere lekuan eta garaian kokatuz, hango eta orduko gizakien begi-bihotzez ikusi eta gozatuz, beti egiaren ederraren bila, ezkutukoa azalduz, topikoak saihestuz²²”.

Egoki da gogoratzea *Oiñez eta jakin-miñez* liburu horietan datozen beste bi aipamen ere. Lehenengoaren hitzaurrean, honela dio Joakin Berasategi Zavalaren adiskide eta Sendoa argitaletxeko buru eta laguntzaile eskergak: “Zenbat millaka orrialde makinaz edo ordenadorez pasa dituan iñork jakin gabe! Zenbat ordu, zenbat gau eta egun orretan emanak! Orrelako sekretario eta langille merkerik ez da sortu Euskalerrian oraindaiño²³”.

Bigarrenaren atarian, Joxe Mari Aranalde zenak: “Kostako da aurkitzen Zavalaren hau baino liburu informatzaile hoberik. Lehen esan dizut dozenaka liburu erosten dituzula gure tolosarraren *Oiñez eta jakin-miñez* hau erostean... Ez daukagu suerte makala Antonio Zavala bezalako gizonekin²⁴”.

Kazetari ere bazen Antonio, periodikuan idazten zuen-eta. Baina ez berak bakarrik. Antoniok jarri zituen egunkarietan idazten Jesus Lete *Ibai-ertz*, Inozentzio Olea, Joxe Aierbe, Joxemari Lertxundi, Txomin Garmendia eta beste hainbat, herri-prosaren kezkak eraginda. Inoiz ez dugu aipatzen hau Zavalaren merituen artean, baina ahalegin hori ere berari zor diogu.

Apaiza zen Antonio, jesuita apaiza, Jesus Mari Etxezarretak hasierako bideoan esan duen bezala. Baina hari ere ez zioten guztiek dena kontatzen, ez. Berak esana da:

“Kontrabandista baten biografia argiratzeko eginaalak egin nituen, baiña nere ustea ustel gertatu zitzaidan. Eta egokiera aundi bat galdu nuen, beste askotan bezela. Gizon ark esan zidan dena kontatu bear izatekotan, bein batean kartzelara nola sartu zuten ere kontatu bearko zidala liburuan, eta olakorik aitortu nai ez ark²⁵”.

Auspoa sailean bertso-liburua argitara eman zuen beste norbaitek, berriz, gerra-denboran gordeta non egon zen kontatu omen zion, baina, ojo: “bajo el secreto de la confesión”. Ez zuen nahi inork hori jakiterik urteak pasata ere. Abade izateak bazituen bere alderdi on eta makurrak.

²² Liburuaren hitzaurrea

²³ Liburuaren hitzaurrea

²⁴ *Oiñez eta jakin-miñez* II liburuaren aurkezpena

²⁵ Elkarrizketa, 1997

Biblioteca de Narrativa Popular

Azkenik, aipamen labur bat sail honi, hori ere bere semea da-ta.

Ibiltari nekaezina zen Antonio, mendizale porrokatua, belarria erne eta begiak beti argi erabiltzen zituen horietakoa -zenbat argazki eta diapositiba eder aurkitu dugun bere artxiboan!-, eta galdetzaile zuhurra gainera, erantzun egoki bat eman ziezaiokeen norbait aurrean harrapatzen zuenean. Euskal Herriko mendi-gailur gehienak ezagutzen zituen -Aragoi aldekoak bezalaxe-, eta artzain eta mendiko gizonekin hitz-aspertu ederrak egiten ahalegintzen zen, jende horrek zeresan asko baitu, eta asko erakusten duela uste baitzuen. Euskal Herritik kanpora ibiltzea egokitu zitzaionean ere kontalari onak badirela ohartu zen. Eta pixkana-pixkana kontu-kontari hasi eta mila pasadizo ederki kontatzen dituela jendeak. Eta bere buruari askotan esan omen zion: “Auekin ere liburu ederrak egin litezke, ba”.

Behin batean, etxetik irten eta mendira joatea erabaki zuen, Xabierren bizi zela; eta kasualidade ikaragarria gertatu zitzaion bidean. Bilintxen liburuaren probak zuzentzen ari omen zen, eta neka-neka eginda zegoen nonbait. Hala, Caseda aldera abiatu zen, Casedatik harantzaxeago, Bardeetako bidean San Zoiloren ermita gotikoa bixitatzeko asmoz. Eta harako bidean, tapa!, bide-ertzean aitona bat ikusi omen zuen enbor zahar baten gainean eserita. Gelditu eta esan omen zion:

-Hola, buenas tardes, señor. Voy hacia la ermita de San Zoilo; pero ¿sabe usted si estará abierta?

-¿San Zoilo? ¡Oh, San Zoilo! Allá íbamos nosotros...

Kontu-kontari hasi omen zitzaion, hau esan eta hori kontatu. Gaztetan nola joaten ziren hango erromerira udaberrian, nola egiten zuten dantzan neska-mutilek... Eta, bat-batean bere buruari Antoniok: “Auxe ere kontalari ederra dek, ba! Onekin zerbait egin bearko genuke!”

Handixe atera ziren Biblioteca de Narrativa Popular sailean argitaratu zituen 28 liburu eder elkarlanean (29na laster argitaratuko da), Indalecio Zaballa “Masio”, Humbelino Ayape, Hilario Jarne, Justo Peña, Juan Rugarcia, Juan Balbin, Daniel Cuesta, Felix Lumbreras, Alfredo Caldevilla, Bonifacio Garcia, Diego Rodriguez, Eloy Tejada, Francisco Argandoña, Antonio Rodriguez, Casquero anaiak, Encarnación Molina, Juan Pablo Jimenez, Modesto Celada...

Auspoa saila ez ezik, maitea zuen Antoniok sail hauxe ere, nahiz eta beldurra eta lotsa eman zion hasieran gazteleraz liburuak egiteak. Baina hartaraxe bultza zuten, nork eta...

“Batek, Burgos aldean entzundako kontakizun batzuk berari kontatzean, onela esan zidan: “Liburu bat egiteko badezu or gaia (Uztapide)”. Eta besteak,

Aragoi aldeko kontakizun batzuk nere aotik entzutean: "Jendeak nai duana esan dezala. Ori lan bera da, bi izkuntzatan egiña izatea (Berrondo apaizak)²⁶".

Antoniori ez zitzaizkion gustatzen laudorio eta aipamen ponpoxoak, baina nori berea. Laburki aipatuko ditudan euskaraz eta gaztelerazko zita hauek zerbait balio dutela uste dut:

Antonio Zavala representa un lujo para la vida intelectual de un país. Es una de esas personas que aparecen rara vez en cada generación de estudiosos, y forman parte, sin proponérselo, del club más exclusivo: el de quienes lo dan todo a cambio de nada. (Jesús Antonio Cid, Menéndez Pidalen kidea eta Complutenseko irakaslea-Madrid)

Edo beste hau:

Me es muy grato reconocer mi deuda, con el profesor Antonio Zavala, a quien debemos la más amplia y monumental labor de recolección y de edición de poesía, narrativa e historia oral que se haya realizado nunca en nuestro ámbito. (Prof. José Manuel Pedrosa. Universidad de Alcalá de Henares)

Eta gehiago:

Lo verdaderamente admirable en Antonio Zavala es que ponga a escribir los libros más bellos de literatura vasca y castellana a hombres y mujeres que nunca han escrito una sola carta. (Xabier Azurmendi. DV 18.09.1994)

Edota,

Recordamos ahora al Padre Zavala por sus publicaciones que están hechas de palabras. Sin embargo, era un hombre de largos silencios. Silencios propios de quien prefiere escuchar, oír la voz de aquellos que casi nunca cuentan, aunque tengan tanto que contar... (Pilar Domínguez Cuesta - Portilla de la Reina, León, 2009ko maiatza)

Eta

Gracias, Antonio, por una vida dedicada a recuperar el acervo popular, al conocimiento de lo elevado y de lo humilde, de los hechos que marcan a los hombres en lo más íntimo, y a su difusión para que quede para futuras generaciones. (Mercedes Lumbreras, Felix Lumbrerasen alaba - Cuando los ciegos guían)

Hemen, Euskal Herrian, Azkuerekin parekatu zuen Gotzon Garate jesulagun zenak:

"Azkueren ondoan, Antton Zavala ipiniko nuke -dio-. Nola goratu behar den bezela Zavalaren emaitza? Ia 300 liburu argitaratu ditu bere Auspoa sailean. Eta nolako liburuak! Atsotitzei buruzko liburuak, Euskal Herriko historiari buruzko liburuak, bertsolariei buruzkoak, gerlan ibili direnen kontakizunak, baserritarren ohiturak eta gorabeherak kontatzen dituzten liburuak... Auspoa bildumaren liburuak irakurtzea, musika liluragarria entzutea da²⁷..."

Zavalaren artxiboa

²⁶ Elkarrizketa, 1997

²⁷ Gotzon Garate, Deia 1997.07.01

Orain, urteak joanda gero, hortxe dago gizon haundi baten ahaleginaren uzta, Auspoan eta berak 2005ean Gipuzkoako Aldundiari eman zion bere artxiboan. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula utzi zigun ondare preziatua!

Artxiboa aipatu dudanez, ordea, sentimentu kontrajarriak zituela Antoniok esan beharko nuke, askotan esaten baitzuen, “Eztakit aundia ala txikia dan, baiña nai duenari balioko diola pentsatzen det”. Edota: “Ala ere, beste gauza bat esan bear dizut: Nere artxiboarekin mito aundi bat egin dezute, geiegizko mitoa. Nere artxiboa ez da jendeak uste duen bezain ugaria eta aundia”.

Beno, Xabierren bete eta kargatu genituen kaja haiek denak zer ziren bada, artxibo haundi eta baliotsu bat izan ezik? Liburu bitxi ederrak, ehunka bertsopaper zahar, eskuz hartutako hainbat eta hainbat apunte, bertso-kuadernoak, eskuidatziak, bertso-jaialdiak zintetan jasota, elkarriketak, ehunka argazki eta diapositiva... Zavalaren artxiboa haundia da, baina zentzu askotan da haundia. Kostako da halakorik berriz egitea!

Nahiz eta norbaiti esan omen zion “Ez det pentsatu ere egin nai nun ikusi nai dedan nire artxiboa etorkizunean”. Niri ez zidan inoiz holakorik esan, eta bere uzta harrigarria, 2005eko otsailaren 2an Xabierren Pello Esnal eta bioi eman zigun hitza zintzo asko betez Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuetan utzi zuen, 2005eko azaroaren 11n -San Martin egunez- orduko Gipuzkoako Aldun Nagusi Gonzalez de Txabarrik, Antonio Zavalak berak eta Jesuiten Loiolako buruak sinatu zuten dokumentu hari esker.

Norbaitek galde lezake: Baina zergatik Gipuzkoan? Izan ere, berak aitortzen zuenez, bildumaren %85 Gipuzkoan jaso zuen; eta utzi zuen tokian uztean, Euskal Herri osoaren eskura utzi nahi zuen: Gipuzkoako Foru Diputazioan, Deustuko Unibertsitatean, Euskaltzaindian... Auspoa eta bilduma osoa egungo teknika eta baliabidetara egokituz. Horretarako ere baimena eman baitzuen artxiboa uzten zuen eskuetan uztean, baina beti ere erabilpen zintzo eta zuzena egitekotan, eta ez askotan egin izan den bezala, informazioa eskuak betean hartu, erabili, eta iturria ixilduz, maltzurkeriaz. Horrek min ematen zion Antoniori, eta guri, lotsa bizia. Izan ere, berak alderantziz egin baitzuen. Norbaitek idatzi zuen bezala, “Antonio Zavala ha elevado al informante a la categoria de autor”. Ia ikasten dugun geuk ere.

Amaitzeko, Lazkao-Txiki bertsolari argiaren bertso bat datorkit gogora:

Arritzen gaitu Aita Zabalak eginda uzten dun lanak:/
galtzear zeuden ainbeste bertso txukun jaso ditu danak;
paperetik bilduak eta lagun artean emanak,
gure izkuntza bizi dan arte irakurriko diranak²⁸.

²⁸ Bat-bateko bertso-saio batetik